

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

**HEZKUNTZA**

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Euroeskualdeko Lanbide Heziketak bigarren bilera egin du Baionan

*Nafarroako hamalau zentroetako zuzendariak eta Euskadiko eta Akitaniako zuzendaritza-taldeetako ordezkariak bertaratu dira*

Ostirala, 2017.eko urriak 6

Hezkuntza  
Departamentuko Lanbide  
Heziketako Zerbitzuko  
ordezkariak dituzten  
Nafarroako sare publikoko eta  
itundutako zentroetako  
zuzendariak Akitania-Euskadi-  
Nafarroa Euroeskualdearen  
barruan egingo den bigarren  
lan-bilerara joango dira gaur,  
lanbide-heziketaren esparruan baterako lankidetzaproiektuak zehazteko.  
Oraingoan Baionako Lanbide Heziketako Chambre Métiers zentroan izango da.



Baionan gaur egindako topaketaren une bat.

Joan den ekainaren 9an Imarkoainen "CISER" Energia Berriztagarrien Goi-mailako Zentroan egin zen "2017 Mugaz gaindiko lankidetzaprogramaren lehen bileraren jarraipena da. Hor, Euroeskualdeko lanbide-hezietarako elementu estrategikoak finkatu ziren Europa 2020 estrategiaren barruan.

Jardunaldi horretan Nafarroako Lanbide Heziketako hamalau zentroetako zuzendariak izan ziren Euskadiko eta Nouvelle-Aquitaniako zuzendaritza-taldeetako ordezkariekin batera. Ekimen hori, lanbide heziketako zentroen, enpresen, teknologia-zentroen eta erakundeen arteko sinergiak sortzeko eta Lanbide Heziketako zentroen eredia aldatzeko kudeaketari buruzko baterako gogoeta egiteko beharraren ondorioz sortu ziren. Izan ere, espezializazio adimentsuko estrategietan oinarritutako eskualdeko garapen-planei erantzun behar zaie, Nafarroako "S3 Nafarroa" kasuan bezala.

Jardunaldi honen hasieran Nafarroan ekainean egindako lana aurkeztuko dute, eta gai nagusia "Mugaz gaindiko Jardueren Komunitate bat eraikitzearen" ingurukoa da. Lan-talde hauek antolatu dira:

G1 Enpresekiko harremanak

G2 Zentroetako berrikuntzaren eta zuzendaritzen kudeaketa

G3 Lanbide Heziketa duala

G4 Berrikuntza metodologikoa

G5 Zentroen nazioartekotzea

Talde horien buruak hiru eskualdeetako adituak izango dira. Nafarroak lanbide heziketa dualeko taldearen buru da. Jardunaldia amaitzeko, LHko CMA6, Chambre de Métiers zentroa bisitatuko dute.